



EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.eus -
20003 Donostia

GARBERAREN ZABALKUNDEAREN ALDE EGINDAKO MERKATARITZA TXOSTENA DELA ETA

Josu Mirena Ruiz Martinek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua ematen dion aukera baliatuz, Garberaren zabalkundearen alde egindako merkataritza txostena dela-eta, MOZIO hau aurkeztu du, Pertsonen Batzordean 2016ko azaroaren 14ko bilkuran egindako interpelazioaren ondorio dena.

JUSTIFIKAZIOA

Donostiako Hirigintza Antolamendurako Plan Orokorren aldaketa dela-eta, asteazkenean, azaroak 2, Udal Gobernuak Garberaren zabalkunde proiektua aurkezteko bilera deialdia egin zuen Udalbatzar aretoan, arauak horrela derrigortzen baitu.

Bilera horretan merkataritza txosten bat aurkeztu zuen Udal Gobernuak, eta gure harridurarako, txostenak ez zion gaiari heltzen. Bizkaian, Baionan, Iruñean eta Gasteizen dauden merkataritza guneak zerrendatzen zituen, zabalkundeak turismoarentzat onurak ekarriko zituela gaineratzen zuen eta, zenbaki potolo batzuk eginda, lana amaitzen zen.

Baina Garberaren zabalkundeak hirian eta auzoetan eduki dezakeen eraginaz txintik ere ez zioen txostenak. Gainera, Ilunberen irekiera eta eragina ez du kontuan hartzen. Udalaren eta hiriaren interesak ez dira inon agertzen; dirudienez Garberarenak bai, hark ordaindu baitu, finean, txostena.

Batzordean Gasco jaunak Iruñea, Baiona, Oiartzun eta Usurbil besteak beste aipatu zituen, baina Garberaren zabalkundeak Donostiako merkataritzan izan dezaken ondorioei buruz ez zuen ezer esan. Eta azken hau oso kezagarria da. Hori dela eta, hauxe da EHBildu taldeak aurkeztu duen:

MOZIOA

1-Donostiako Udalbatzak udal Gobernuari eskatzen dio merkataritza txostena egin

dezala Garberaren zabalkundeak auzoetako merkataritzan izango luken eragina aztertuz, eta kontutan hartuz ere Ilunberen irekiera.

Donostia, 2016ko azaroak 18

Josu Mirena Ruiz Martin
EH Bildu udal taldeko zinegotzia